



Kale Nagusia 10 (KP 31820)  
Tef. 948460004  
udala@etxarriaranatz.eus  
www.etxarriaranatz.eus

# EDIKTUA

## **HERRIKO ERAIKUNTZEN ZAHARBERRITZE ETA APAINKETA ETA BESTELAKO OBRETARAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA**

Etxarri Aranazko Udalak, 2018ko apirilaren 11n egin osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko herriko eraikuntzen zaharberritze eta apainketa eta bestelako obretarako laguntzak arautzen duen udal ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsi, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Etxarri Aranatz, 2018ko apirilaren 11an  
ALKATEA/ Eneka Maiz Ulaiar.

